

JOANNES LEIZARRAGA: *TESTAMENTU BERRIA*, *KALENDRERA*, *ABC* LIBURUKIEN FAKSIMILEZKO BERRARGITARAPENAREN AURKEZPENA

Bilbo, 1990-VI-15

Jose Antonio Arana Martija

AURKEZPENA

Denok dakigunez, Elsoren *Doctrina Christiana* (1561) delakoaren ale bat agertzen ez den bitartean, inprimaturik ezagutzen dugun bigarren euskal idazle baten lana Joannes Leizarragarena da, hiru liburu eman bait zituen argitara 1571ean: *Testamentu berriaren* itzulpena, eliz liburua eta katekima bat erantsi zizkiolarik, *Egutegi* bat eta *ABC* edo kristauaren jakintzarako ikasbide antzekoa.

Bernard Etxepare izan zen izatez lehen euskal idazle inprimatua, 1545ean ikusi bait zuen *Linguae Vasconum Primitiae* kaleratua. Liburu honen lehen argitarapenaren faksimila Julio de Urquijok eman zigun RIEV aldizkarian (1933) eta, beste argitarapen batzuren artean, Euskaltzaindiak ere ezagutzera eman zigun 1980an, edizio kritiko batetan, Euskararen Lekukoaren bildumaren bigarren liburukian. Bere funtsezko helburuetariko bat bete nahian, beharrezkoa iruditu zaio Erakunde honi euskal literaturaren bigarren autorea ezaguteraztea.

Leizarragaren lana faksimilez inprimatzerakoan, ale eredugarri osoa eta bikaina aurkitzeko zailtasunaren aholkuz, beste bide bat hartzea egoki ikusi zen, hots, Hugo Schuchardt-ek, Theodor Linschmann-en laguntzarekin 1900ean prestatutako argitarapen ia faksimila eredutzat hartzea. Ordurako, 1828an argitaratua zen Leizarragaren *Testamentu berria* lapurteraz. Vinson (1874), Van Eys (1877) eta Dodgson-ek (1891-1896) ere San Marko, San Mateo eta San Juan-en Ebangelioak argitaratu zituzten. Baina idazlan osoak argitaratzea premiatsu ikusten zen, lehen edizioa lortezina zelako eta 1900ean aipatu alemanek egindakoa ere bakana izatera iritsi delako eta toki gutxitan oso osoan irakurgarria, hau da, Schuchardt-en hitzaurre baliotsuarekin. Hordagok 1979an egin zuen argitarapena ez da 1571.eko lehen edizioaren faksimila, 1900.ekoarena baizik, apurren bat neurritz handitua, baina filologo alemaniarren hitzaurre bakoa.

Duela laurogeita hamar urte Strasburg Europako hiriburuan egindako argitarapenaren faksimila da oraingoan aurkezten dena, eta honekin Europari eskaintzen diogu euskaldunok beraren hizkuntza zaharrenaren erakuspena, oraindik bizirik jarraitzen duena, XVI. mendeko erabilera landuan. Bertan faksimilaturik azaltzen diren euskal testuek zehazki jarraitzen dituzte lehen ediziokoak, Schuchardt-

-ek hasierako estudioan egiten dituen oharrak kontutan izan behar direlarik. Honen emaitza Iñigo Ruiz Arzallus eta José Manuel Vélez Latorre jaunek gaztelaniara itzuli dute, izenen aurkibidea eta aipatu estudioan agertzen diren euskal hitzena ere itzulpenari erantsi diotelarik. Leizarragaren lana hobeto erabiltzeko gaien aurkibide bat erantsi diogu azken orrialdeetan liburu mardul honi, beheko aldean jarri dugun orrialdeztapen orokor berriari dagozkiolarik aurkibide horren zenbakiak.

Liburu honen berregintza Euskaltzaindiak Altube euskaltzain jaunaren liburutegitik lortu zuen aletik egina da. Leizarragaren idazlanen edizio osoaren mila ale zenbatuak kaleratzen dira, aurrekontuaren zati bat ordaintzeko Kultur Ministeritzak diru laguntza eman duelarik.

I. LEICARRAGA^S

Baskische Bücher von 1571

(Neues Testament, Kalender und Abo)

im genauen Abdruck

herausgegeben

von

TH. LINSCHMANN und **H. SCHUCHARDT**

Mit Unterstützung

der Kais. Akademie der Wissenschaften

zu Wien

Strassburg

Verlag von K. J. Trübner

1900

PRESENTACION

Es de todos sabido que, mientras no aparezca algún ejemplar de la *Doctrina Christiana* de Elso (1561), el segundo autor vasco cuya obra impresa se conoce es Joannes Leizarraga, quien en 1571 dio a la luz tres libros: la traducción del *Nuevo Testamento*, con un devocionario y un catecismo, un *Calendario* y el *ABC*, o especie de método para la instrucción del cristiano.

El primer escritor vasco impreso, Bernard Etxepare, vio publicada su obra *Linguae Vasconum Primitiae* en 1545. Julio de Urquijo hizo una edición facsímil de esta obra en RIEV (1933) y, entre otras ediciones, esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia la dio a conocer con el número dos de su colección de clásicos del vascuence, en edición crítica, en 1980. En cumplimiento de uno de sus objetivos fundamentales se hacía preciso dar a conocer al segundo autor de la historia de la literatura vasca.

La dificultad en encontrar un ejemplar completo y correcto de la obra de Leizarraga para su edición facsímil ha aconsejado recurrir a la edición, casi facsímil, preparada por Hugo Schuchardt, en colaboración con Theodor Linschmann, en 1900. Ya antes, en 1828, se había publicado el *Nuevo Testamento* de Leizarraga en versión labortana. También Vinson (1874), Van Eys (1877) y Dodgson (1891-1896) habían publicado los Evangelios de San Marcos, San Mateo y San Juan. Pero se hacía necesaria la publicación de la obra completa, porque si la primera edición era prácticamente inasequible, la alemana de 1900 ha llegado a ser también rara y en pocos sitios consultable en su totalidad, es decir, con la valiosa introducción de Schuchardt. Ha de advertirse aquí que la edición que hizo Hordago en 1979 no es facsímil de la primera de 1571 sino de la de 1900, algo ampliada, pero sin el estudio preliminar del filólogo alemán.

Esta edición que ahora se presenta es facsímil de la que hace noventa años se hizo en la capital europea de Estrasburgo y con ella ofrecemos los vascos a Europa una muestra de su idioma más antiguo, todavía vivo, en versión culta del siglo XVI. Los textos vascos facsimilados en ella respetan escrupulosamente los de la primera edición, con las advertencias que hace Schuchardt en su largo estudio preliminar. Las aportaciones de éste han sido traducidas al castellano por Iñigo Ruiz Arzallus y José Manuel Vélez Latorre, quienes han añadido un índice de nombres propios y otro de términos vascos que aparecen en el citado estudio. Hemos añadido también al final del voluminoso libro un índice de materias que facilita el manejo de la obra de Leizarraga, índice que remite a la nueva paginación general situada al pie de las hojas.

La reproducción se ha hecho del ejemplar que posee la Academia, procedente de la biblioteca del académico Sr. Altube. Una subvención del Ministerio de Cultura ha hecho posible, en parte, la edición de mil ejemplares numerados de la obra integral de Leizarraga.